operatibista fabrikaren kontrol demo-
kratikoaren balio subertsibo horreta-
tik beste edozein putre kapitalistaren
modura jardutera? Non dago «lana-
ren ordezkarien kontrola» Eroskik
Galizian bere sektoreko soldata ba-
xuenak dituenen, Fagorrek kalera-
tzeetan bazkide ez direnei bizkarra
ematean, Lagun Aroko harpideak ez
diren bazkideekin zerrenda beltzak
egitean edo Laboral Kutxa mendeko
finantza-ekarpenen bidez jendearen
aurrezkiak lapurtzen ari denean?

MCC berak eta gainerako mugimendu kooperatibistak lau haizetara aldarrikatzen dituzten printzipioen arrastorik ez dugu aurkitzen bertan. Lanaren subiranotasuna, antolamendu demokratikoa eta kapitalaren izaera instrumentalaren eztizko ametsak iraganeko distiraren arrastoak besterik ez dirudite, apalategian edergarri gisa jartzen diren liburu zaharren antzera. Baina gaitz hori ez da MCCra mugatzen, ezta kooperatibismora soilik ere. Azken finean sozietate kooperatiboa, gaur egungo merkatu ekonomian, forma juridiko sozietario bat besterik ez da. Bazkideen ekarpenen forman, batzarretako botoetan edo tributazioan berezitasunak dituen arren egungo sozietate kooperatiboak oso urruti daude mugimendu kooperatibistaren espiritu historikotik. Hala ere, konpromiso etikoak mantentzen dituzten enpresak sortzeko gurutadak fededun berriak aurkitu ditu nonahi, kooperatibaren forma hartuta zein hartu gabe. «Ekonomia sozial eta solidarioa» deituriko kontzeptuak, adibidez, anbizio hori duten proiektuak barne hartzeko asmoa du.



Estandarte horren azpian sortutako kontsumo, banaketa, ekoizpen edo dena delako proiektuek «konpromiso etiko» batzuei uko egin gabe oligarka zitalenekin lehiatu behar dute. Langileen baldintza onen, ingurumenarekiko errespetuaren, ekoizle txiki-kiko loturaren eta kapitalak irensten dituen gainerako balore babesgabeek merkatuaren barruan dituzten azken gotorlekuak baitira. Hala, etsenpluaren bidez predikatu nahi dute, gero eta enpresa gehiagok haien bidea jarrai dezaten. Era berean, haien debotzioak gainerako enpresariak inspiratuko dituelakoan daude, merkatu osoak langileen baldintzak hobetzea, ingurumena errespetatzea eta beste edozein inperatibo moral euren egin arte. Ekonomia sozial eta eraldatzai-learen barruan aldaera asko daude, noski. Batzuek, adibidez, beharrezkotzat jotzen dute gobernuaren babesa kooperatibek gainerako enpresekin lehiatu ahal izateko. Hala ere, funtsezko ideia partekatzen dute gainontzeko kooperatibekin.

**Nola igaro ote
da mugimendu
kooperatibista fabrikaren
kontrol demokratikoaren
balio subertsibo
horretatik beste edozein
putre kapitalistaren
modura jardutera? Non
dago «lanaren ordezkarien
kontrola» Eroskik Galizian
bere sektoreko soldata
baxuenak dituenean,
Fagorrek kaleratzeetan
bazkide ez direnei
bizkarra ematean, Lagun
Aroko harpideak ez diren
bazkideekin zerrenda
beltzak egitean edo
Laboral Kutxa mendeko
finantza-ekarpenen bidez
jendearen aurrezkiak
lapurtzen ari denean?**


Kostata sinetsi daiteke, inguruko miseria ikusita, eredu alternatibo bat martxan jartzen saiatzeko adorea izan duten eta askok oraindik duten kooperatibista zintzo guztiak halako ustelkeria eta atzerakada ideologiko batean erori direnik bata bestearen atzetik

MERKATUAREN BRONTZEZKO LEGEA

Nahiz eta halakoen eta MCCko putre korporatibisten artean amildegi etiko erraldoi bat egon, biek egiten dute topo lehenago edo berandua-go merkatuaren lege bortxaezinekin. Ekonomialari klasikoek «soldataren brontzezko lege» kontzeptua erabiltzen zuten biztanleriaren eta elikagaien prezioaren hazkundearen arteko desorekak soldata biziraupe-nerako maila minimora mugatzen zutela adierazteko. Horrekin, lege hori soldataren muga gaindiezina zela adierazi nahi zuten, hau da, joera demografiko bat. Errealitatean, Marxek adierazi bezala, brontzezko lege hori naturala izatetik urrun kapitalismoaren ondorio zen, lan egiteko gaitasuna (lan indarra) gainerako merkantzien modura salerosten baitzen. Era berean, gorago aipatu dugun kooperatibismo edota ekonomia eraldatzaileraren porrota gizarte honi berezkoa zaion merkatuaren brontzezko legeari lotua dago. Izan ere, merkatuak bere erritmora eta neurrietara moldatzen ez den enpresa oro kanporatzen du. Ondorioz, lehen aipatutako enpresa alternatiboak, arrain-sarda baten moduan, merkatuaren korronte erraldoiaren aurka igeri egin ezinean ari dira.

Zergatik amaitzen dute orduan batzuek MCCk bezala, edo beste batzuek beren helburutik horren urrun? Euren lana eta inizatiba, gorputza eta arima behin eta berriro sakrifika-tu dituzte pertsona askok halako proiektuak aurrera ateratzeko. Steve Jobs, Amancio Ortega edo negozioen munduan arrakasta izan duen edozein ekintzaile aberatsek baino askoz ere gogorrago egin dute lan. Ezinezkoa da, beraz, borondate falta izatea abenturazale filantropo horiei guztiei falta zaiena. Kostata sinetsi daiteke, inguruko miseria ikusita, eredu alternatibo bat martxan jartzen saiatzeko adorea izan duten eta askok oraindik duten kooperatibista zintzo guztiak halako ustelkeria eta atzerakada ideologiko batean erori direnik bata bestearen atzetik. Zergatik ez dute aurrera egiten, bada, proiektu adoretso horiek? Bada, Arrasateko apaizak aurkitu zuen horma berarekin egiten dutelako topo.

Inork saihestu ezin dezakeen diktadura gupidagabe horrek ez du indar armatuen beharrik hertsapenerako. Prezioa da enpresa horiek guztiak merkatuaren mandamentuak betetzera behartzen dituen munstroa. Era sinplean esanda, zenbait kriterio etikok (bere lehiakideek baino soldata altuagoak ordaintzea, bertako lehen-gaiak erabiltzea, ekoizpen prozesuan kutsadura murriztea...) enpresak saltzen dituen produktuen prezioan eragiten dute azken instantzian, eta, beraz, bere lehiakortasunean. Konpromiso horiek goresgarriak badira ere, produktu lehiakorrek saltzeko beharrarekin orekatu behar dira, bestela kapital metaketarako gaitasun handiagoa duten lehiakideek kanporatuko baitituzte. Ezer gutxi balio dute konpromiso etikoek kreditu, kapital sozial, likidezia, merkatu-kuota, inbertsio-gaitasun eta kaxa-fluxu handiagoak zein prezio baxuagoak dituzten enpresekin norgehiagokan. Horrenbestez, gainerako enpresen antzera, merkatuan lehiatzen diren enpresa alternatiboak Damoklesen ezpataren pean bizi dira. Etikaren eta negozioen arteko dilema horren baitan, irabaziak handitzea ez diren irizpide etikoekin eta demokratikoekin jokatu nahi duenak, bi aukera soilik ditu: bere irizpideak ez betetzea edo lehiakideek irentsita desagertzea. Escobar narkotrafikatzaileak dioen bezala: «plata edo plomua».



***Prezioa da enpresa horiek guztiak
merkatuaren mandamentuak
betetzera behartzen dituen
munstroa. Era sinplean
esanda, zenbait kriterio
etikok (bere lehiakideek baino
soldata altuagoak ordaintzea,
bertako lehengaiak erabiltzea,
ekoizpen prozesuan kutsadura
murriztea...) enpresak saltzen
dituen produktuen prezioan
eragiten dute azken instantzian,
eta, beraz, bere lehiakortasunean***

Brontzezko legeak, hau da, merkatu kapitalistaren legeak, azaldutako oinarri horretatik abiatuta, bere aldaera ezberdinekin egungo egoera ikaragarria sortzen du. Lege horren beste aurpegietako bat kapitalaren kontzentrazioa eta zentralizazioa da. Lehena, inolako eskrupulurik gabeko korporazioek prezio baxuenak eta irabazi handienak metatzen dituztelako. Bigarrena, berriz, aberastasun horrek lehiakideen enpresak osorik erostea baimentzen dielako. Hala, darwinismo kapitalista horrek merkatu botere neurrigabeak dituzten monopolioak eta oligopolioak sortzen ditu. Beren eremu geografiko edota sektorialeko jaun eta jabe bihurturik, prezioak diktatzen dituzten agintari drakoniar gisa koroatzen dute euren burua. Inolako zuzenbide natural zein positiborik aitortzen ez den oihan honetan, hau da, kapitalisten arteko lehiak soilik agintzen duen erregimen honetan, MCC bezala etika guztia saldu eta erraldoi industrial bihurtzen ez direnak, merkatuko indar geldiezin horien menpe egongo dira. Enpresa alternatibo horiek (gainerako enpresa txikiak, autonomoak, etab.) preziohartzaile (*price-takers*) hutsak izango dira, nola edo hala merkatuko *Goliat* horien irabaziak handituko dituzte eta, aldi berean, beren burua bizirik mantentzeko dirua biltzen saiatuko dira.

Adibide zehatz bat emate aldera, merkatu energetikoan gertatutakoa azter dezakegu. Som Energia «irabazi-asmorik gabeko kooperatiba» bat da, «energia berdearen ekoizpen eta komertzializazioan» aritzen dena, bere hitzetan. Xede laudagarria da gero elektrika enpresen merkatuan trantsizio energetikoaren alde apustu egitea axioma gisa duen kooperatiba bat martxan jartzea. Baina eskuko hatzekin zenbatu daitekeen enpresa multzo batek inolako ezbairik gabe argiaren handizkako prezioa handitu zuenean, ezer gutxi egin zezakeen bazkideen borondate onak, galerak borondatezko ekarpenen bidez osatzen saiatzeaz gain. Aurreko martxoan bezeroak onartzeari utzi zioten, kontratu berri bakoitzarekin dirua galtzen baitzuten. Horra hor kooperatibismoaren burujabetza: printzipioei uko egin edo jarduerari uko egin.

Hala, enpresa ororen kasuan bezala, bide alternatibo bat eraikitze-ko bokazioarekin jaiotako kooperatiba horien existentzia ere kostuak murrizteko saiakera konstante bat bihurtzen da. Izan ere, merkatuan lehiatzen duen enpresa batentzat oso garestia da aipatutako printzipioak mantentzea. Egia da askok (kooperatiba bakoitzaren arabera) ez dietela sozio kapitalistei irabazirik ordaindu behar, baina bai bankuari, hornitzaileei edo bazkideei (langileak badira ere askotan sozio kapitalistak baino ez-solidarioagoak dira). Mugimendu kooperatibista aipatu ditugun arazoei aurre egiten saiatu da behin eta berriro, besteak beste, aurrezki eta kreditu kooperatiben zein kontsumo kooperatiben bidez. Hala ere, beti geratzen da agerian konglomeratu horiek, haien arteko harremanetan behar batzuk asebate arren, alde batetik edo bestetik merkatu «arrunt» edo kapitalistaren menpe daudela.

Internazionalaren baitan izandako eztabaidetan, mugimendu kooperatibistaren urrezko aroaren hasieran, Marxek argi adierazi zituen halako proiektuen mugak zein bertuteak:

«Era berean, 1848tik 1864ra arteko aldiko esperientziak argi eta garbi erakutsi du, praktikan bikaina izan arren, langile sakabanatuen ahalegin partzialen zirkulu estuan itxitako lan kooperatiboa ez dela gai monopolioaren aurre-rapen geometrikoa gelditzeko, ez dela gai masak emantzipatzeko, eta ez dela gai bere miseriaren zama arintzeko ere. Hori da, agian, asmo oneko aristokrata batzuek, filantropiko burgesek eta are ekonomialari zorrotzek, bat-batean lan kooperatiboaren sistema goraipamenez betetzea erabakitzeke benetako arrazoia, alferrik saiatu baitziren sistema hori ernamuietan itotzen, ameslarien utopia bat bezala barregarri uzten edo sakrilegio sozialista bat bezala estigmatizatzen. Langile-masak emantzipatzeko, lankidetzak garapen nazionala lortu behar du, eta, ondorioz, bitarteko nazionalen bidez sustatu behar da.»

Aurreko aipuan argi geratzen da, beraz, kooperatibismoak merkatuaren brontzezko legearen pean, lege kapitalistaren menpe, alegia, zer nola-ko izaera hartzen duen; autonomoen edo enpresa txiki eta ertain askoren kasuan bezala, langileen esplotaziorako mekanismoak dira berdin-berdin, zeharka bada ere. Izan ere, biziraupenerako kostuak murrizteko behar horrek lan baldintzak okertze-ra, kutsadura handitzera eta gainerako exigentziak onartzera behartuko du enpresa. Finean, aurrez kapitalismoarekin amaitzeko baldintzak ez badaude, kooperatibismoaren baitan, langileak euren buruaren kapitalista bihurtzen dira, eta horrek ez du langileen askatasunik bermatzen. Marxek honela zioen *Kapitala* lanean:

Som Energia «irabazi-asmorik gabeko kooperatiba» bat da, «energia berdearen ekoizpen eta komertzializazioan» aritzen dena, bere hitzetan. (...) Baina eskuko hatzekin zenbatu daitekeen enpresa multzo batek inolako ezbairik gabe argiaren handizkako prezioa handitu zuenean, ezer gutxi egin zezakeen bazkideen borondate onak, galerak borondatezko ekarpenen bidez osatzen saiatzeaz gain. Aurreko martxoan bezeroak onartzeari utzi zioten, kontratu berri bakoitzarekin dirua galtzen baitzuten




«Langileen beren lantegi kooperatiboak dira, forma tradizionalaren barruan, bertan (sistema kapitalistan) irekitako lehen arrakala, nahiz eta, edonon daudela ere, haien antolaketa eraginkorrrak, jakina, lehendik dagoen sistemen akats guztiak aurkezten dituen, eta nahi eta nahi ez aurkeztu behar dituen. Baina lantegi horien barruan kapitalaren eta lanaren arteko antagonismoa ezabatuta dago, nahiz eta, oraingoan, langile elkartuak euren kapitalistak diren modu bakar batean, hau da, ekoizpen-baliabideak erabiltzen dituzte beren lana balioesteko».

NOLA IRITSI GARA HONA? KOOPERATIBISMOAREN TRAGEDIAREN JATORRIAK

1844an artisau eta langile talde txiki batek enpresa bat bere kabuz eraikitzea erabaki zuen Ingalaterrako Rochdaleko barrutian. Haien inguruko langabezia eta miseriak bultzatutako abenturazale horiek ezarritako printzipioak gerora mugimendu kooperatibistaren bandera bihurtu dira: kontrol demokratikoa, soberakinen itzulera, kapitalaren interesei mugak jartzea, bai eta fabrika inolako jabe kapitalistarik gabe kudeatzea ere, administrazio kontseilua eta bertako kontulari zein zuzendari koadrila beharrezkoak ez direla frogatzeko.

Saiakera hori mugimendu kooperatiboaren mito fundatzaile bihurtu den arren, lehendik ere egon ziren hainbat langile talde jardun horretan. Langile goseti eta etsien jardun praktikotik haratago, David Ricardoren jarraitzaile (edo interprete) ezkertiar deiturikoei aldaketa orokor baten aitzindari gisa kokatu zituzten. Thompsonen, adibidez, 1827an, sindikatuen eta kooperatiben bidez kapitalismoaren alternatiba bat proposatzen zuen. Zentzu berean mintzatu zen Owen sozialismo utopikoaren baitan, industrializazioa, lehian beharrean, kooperazio orokortu batean oinarritzeko beharra defendatu baitzuen. Sozialismo asoziazionista eta utopia owenista horiek lehiaren





abolizioan zentratu ziren gehienbat. Are gehiago, Rochdale baino lehen kooperatiben hainbat kongresu izan ziren ekoizpen kapitalistarekin apurtzeko norabidea bateratzeko. 1844rako mugimendu kooperatibista osatuta zegoen, haien arteko aliantza, funtzio politikoaren teorizazio homogeneoa eta norabidearen azalpen zientifikoa jada gauzatu baitzituzten. 1830erako 300 kooperatibatik gora zeuden Ingalaterran, beren aldizkari eta koordinazio organoekin.

Mugimendu horrek lehen ideologia ekonomiko ortodoxoaren arreta ere deitu zuen. Malthus berak saiakerak idatzi zituen kooperatibismoak eskasia eragingo zuela defendatu nahian. Dena den pentsamendu burges menderatzailearen hasierako erreakzio hori apalduz joan zen, gorago Marxek aipatzen zuen moduan. Millek, adibidez, kooperatibak etorkizuneko joera gisa ikusten zituen. Bere ustez, une batean irabaziak ez lirateke ekonomiaren motorra izango:

«Jabeen eta langileen arteko harremanaren orde, bi modu hauetako bat ezarriko da: kasu batzuetan, langileak kapitalistarekin elkartzea; beste batzuetan, eta agian guztietan azkenean, langileak euren artean elkartzeko dira».

Irabazi asmorik gabeko kooperatiben orokortzeak «iraultza moral» bat ekarriko luke justizia soziala azkenik posible litzatekeen kapitalismoaren fasean. Ideia hori gehiagotan errepikatu zen ekonomialari ospetsuenen artean. Geroago, ekonomia neoklasiko hegemonikoaren aitek (besteak beste, Marshallék eta Walrasek) langileak administrazio kontseiluetan txertatzea defendatu zuten, zuzendaritza erantzukizunaz ohartu eta zuzendaritzaren beraren langileekiko harremana humanizatzeke.

Mende erdialdetik aurrera, aldiz, ordena napoleonikoan eraikitako gizarte zibilak eta kapitalismo jaioberriko lehia askeko merkatuak hondoa jo zuten. Vienako akordioaren bakeak, bankaren eta burtsaren hazkundeak eta amaigabea zirudien karrera kolonialak aberastasun metaketa neurrigabeen sorrera erraztu zuten. Ordura arteko historian izandako korporazio kontzentratuenek lehiakide guztiak irensei zituzten. Izan ere, firma bakar batean batzen ziren ekoizpen prozesu osoak, eta marka ezberdinak sare karamilatuen bidez lotzen ziren. Horrez gain, administrazio kontseilu guztietan banku gutxi batzuen presentzia errepikatzen zen. Kapital industrialak eta bankariak bat egin zutenean, kapital finantzario bat sortu zen, eta horren ondorioz, gobernuek barne-politikak hartu behar zituzten ordena mantentzeko, bai eta kanpo-politikak ere, abentura inperialistei laguntzeko. Gorago aipatu den gisa, enperadore komertzial horiek prezioak nahierara ezartzen zituzten, noski. Lehia liberalaren gainbehera horretan mugimendu kooperatibistaren alderdi burgeseko eta burges txikiko hegal liberala ahulduz joan zen. Emilio Nazzaniren gisako pentsalarien tesiak gerora zentzugabetzat jo ziren:

«Askatasuna eta lehia errespetatuz, langileen ekoizpen-elkarteek ez diote laguntzarik eskatu behar Estatuari. Askatasunez konkistatu behar dute gizarte-ordenan duten postua, ausarki, beren indarrekin, gobernuari eskua luzatu gabe».

Testuinguru horretan, Nazzaniren moduko eskola italiarretik urrunduz, kooperatibismoa, germaniar eta frantziar inguruneetan gero eta indartsuagoak ziren estatu-nazioen eskutik irudikatu zen. Lavergne izan zen XX. mendearen lehen erdialdean kooperatiba publikoen figura zabaldu zuena. *Régie coopérative* horiek bazkide ziren administrazioen (udalak, probintziak, departamentuak, instituzioak...) esku zeuden, noski, baina garai hartarako fabrikaren baitako demokrazia eta langile kontrola asko lausotu ziren. Hala ere, eskaintzen zen merkantziaren prezioa minimoa izaten saiatzeko printzipioa mantendu zen, eta horrela kooperatibaren eta enpresa publikoaren kontzeptuak erabat nahasi ziren. Aipatutako testuinguruak lagunduta kooperatibismoaren kontzepzio pragmatikoa nagusitu zen, eta eskola italiar liberalean (Rabbeno) ere Estatuaren kredituak eta laguntzak onartzeko posizioak sortu ziren.

II. Mundu Gerra ondorengo ongizate estatuaren baitan, kooperatiben kontzeptuaren nahasmenak berdin jarraitu zuen. Oligarkia yankiaren erabateko nagusitasunean, kapitalismo monopolista deitu izan den garaian, ekoizpen alternatiboaren biziraupe nerako, Estatuaren laguntzak beharrezko izaten jarraitu zuen. Kooperatibisten arteko eztabaidak, beraz, gerra aurreko terminoetan izan ziren; hau da, laguntza horrek handiagoa ala txikiagoa izan behar ote zuen. Ikerketak, aldiz (garaiko Mendebaldeko marxismoaren kasuan bezala ia eskusiboki akademikoa), kooperatiben sailkapen ezberdinetan zentratu ziren horien funtzioan baino. Izan ere, kooperatiba batzuk (MCC edo Crédit Agricole izan daitezke adibide ezagunak) kapitalaren hazkunderako forma juridiko-sozietario hutsak bihurtu ziren. Gehiengoak, ordea, ezin zuen merkantuan lehiatu. Era berean, asko izan dira, gaur egunera arte, kooperatibismoaren espiritua erabat galdurik, hasierako idiosinkrasia berreskuratze-ko saiakerak. Azaldutako ekonomia

sozial eta eraldatzailea (ESS) adibide aproposa da, eskala mugatu batean printzipio etiko batzuk errespetatzen saiatu baita. 2008ko krisiaren testuinguruan piztu zuten interesa bereziki halakoek, langabezia eta pobrezia orokortuen irtenbide gisa. Zer esanik ez oso eskala txikian leundu ahal izan dituztela arazo horiek, lortu izan dutenean. Espainiako Estatuan Coop57 litzateke horren adibide bat, zeinak ekoizpen eta kontsumo kooperatiben sare zabal bat eta horien finantzaketarako baliabideak biltzen dituen. Proiektu horiek zenbait printzipio erlatiboki mantentzeko ahalegin handia egiten dute, egoerak baimentzen dienean behintzat, eta ESSko erreferente nagusiak izanda ere, euren eragin-esparrua nabarmen mugatua da. Coop 57k, esaterako, 50 milioi inguruko funtsak maneiatzen ditu guztira (horietatik 48 inguru borondatezko ekarpenak dira). MCCk, aldiz, 11 milioi euro biltzen ditu urtebeteko fakturazioan soilik, eta 335 milioi inguruko inbertsioak ditu. Nabarmena da bakoitzaren eragin esparruaren ezberdintasuna.

Epigrafe horretan egindako narrazioak bere burua mugimendu kooperatibistaren ondorengo izendatzen dutenek eraikitako kontakizuna jarraitu du. Baina errepasatu dugun historia ofizial horretatik kanpo, kooperatibismoaren kontzeptuak sasi-ondorengo ugari izan ditu. Autogestioa, adibidez, itzulipurdi asko egin dituen hitza izanda ere, kooperatibismoarekin harreman estua izan duen armarrria izan da. Espainiako gerra zibiletik edo Italiako gerrarte-ko garrantik hasita 2001eko Argentinako eta 2008ko Greziako esperientzietaraino, oso ezberdinak izan diren gertakariak zaku horretan sartu izan dira. Horiez gain, mugimendu kooperatibistaren barruan ere kooperatiben eredu berriak sortu ziren, printzipio historikoen bertsio berri batekin (Ward, Domar edo Vanek bezalakoek jasotako fenomenoak).

(...) hemen ez dago elkartasunaren eta elkarlanaren printzipio kooperatibisten kritika absoluturik, horiek gizarte kapitalista batean gauzatzeko hautu politikoarenak baizik

Funtsean jabe kapitalistek alde batera utzitako fabrikak langileen artean kudeatzean oinarritu izan da autogestioaren aldarrikapena, batzuetan jabeei fabrika kenduta. Edonola ere kooperatiba klasikoen inguruan hitz egitean aipatutako muga berberekin aurkitu ziren beren lanpostuak defendatzeko antolatutako langile ausart horiek. Lehenago edo beranduago, fabrikari berton patroirik ez egon arren, hornitzaileak, bankua edo monopsonioa zuen bezeroa bertako langileen esplotatzaile are zitalagoak bihurtzen ziren: lan erritmoak azkartzea, soldatak jaistea, kostuak murriztea... Kapitalaren betiko sinfonia fabrika kanpotik sartzen zen langile horiek merkatuan nabigatzen saiatu orduko. Esperientzia horiek aztertzea artikulu honen xedea ez den arren, horien inguruko eztabaidetan eta irakaspentetan askotan errepikatu izan da galdera

hau: zertarako balio du lantegiaren jabe izateak, kapitalaren diktadura gupidagabea eteten ez bada?

Azkenik, badira erabat ezberdinak izan arren kooperatiba gisa izendatzen diren beste zenbait unitate produktibo, hala nola, sozialismoaren eraikuntzarako prozesuen baitan sortu diren kooperatibak: Errusia boltxebikean sortutako nekazal-kooperatibak, Yugoslaviako sozialismo autogestionarioa deiturikoa, Italiako langile kontrolpeko fabrikak... Artikulu honetan zehar esku artean darrabilgun kooperatiba kontzeptutik asko aldentzen diren fenomenoak dira. Gainera, haien artean ere amildegia bat dago. Dena den, azpikeriaz bada ere, baten batek kooperatiben mugak ukatzeko erabili ditzake. Jarraian, beraz, oihan horretan murgilduko gara, gainazala soilik ukituko dugun arren.



Lehen pausoak ematen ari zen kooperatibismoari dagokionez, are gazteagoa zen mugimendu komunistak haren printzipio teoriko-politikoak birrintzen zituzten hiru eztabaidari heldu zien: zein gaitasun du kooperatibismoak gizarte kapitalista eraldatzeko, zenbateraino da kooperatibismoa sozialismoaren aitzinirudia eta zer harreman izan behar dute kooperatibek Estatuarekin



PERTSONA ASKEEN ARTEKO BORONDATEZKO ELKARLANA: KOOPERATIBISMOA ETA SOZIALISMOA

Amaitu baino lehen, beraz, azpimarratu beharra dago aztertu duguna merkatu kapitalistan lehiatzen duten kooperatibei dagokiela. Hau da, hemen ez dago elkartasunaren eta elkarlanaren printzipio kooperatibisten kritika absoluturik, horiek gizarte kapitalista batean gauzatzeko hautu politikoarenak baizik. Ez al du kooperatibaren kontzeptuak funtziorik bete mugimendu komunistaren ibilbidean? Ez al dira printzipio kooperatibista historiko horiek bateragarriak sozialismoaren eraikuntzarekin?

1840ko hamarkadan hasi zen sozialismo asoziazionista pisua galtzen langile mugimenduaren baitan, marxismoaren alde, makina berriek gehien zigortutako artisauen artean bereziki. Hala ere, Manifestu Komunistak lau haizetara zabaldutako klase banaketak eta ekoizpen harremanen iraultzak oihartzun txikiagoa izaten jarraitu zuten sindikatu, babes-kutxa, greba, mutualitate eta kooperatibek baino langile mugimendu heterogeneoaren baitan. Are gehiago, Paris-ko Komunara eta I. Internazionalera arte, Marxek halako proiektuen inguruko eztabaida politikoetan parte hartzen jarraituko zuen, besteak beste, Proudhoninekin eta Bakuninekin. Bere heriotzaren ondoren ere sozialdemokrazia alemaniarraren baitan sozialismo burges txikiaren lelo berdina erreplikatu ziren. Tresna horiek guztiak, kooperatibismoa barne, oso praktikoak eta garaiko edozein prole-

tario arrunten bizitzak zekarren oina-zean arintzeko eraginkorrak ziren azken finean. Lehen pausoak ematen ari zen kooperatibismoari dagokionez, are gazteagoa zen mugimendu komunistak haren printzipio teoriko-politikoak birrintzen zituzten hiru eztabaidari heldu zien: zein gaitasun du kooperatibismoak gizarte kapitalista eraldatzeko, zenbateraino da kooperatibismoa sozialismoaren aitzinirudia eta zer harreman izan behar du kooperatibek Estatuarekin (azken hori soilik partekatzen zuen gainerrako kooperatibismoarekin, liberalak barne).

1848ko iraultzan, hainbat txokotako proletarioek gizarte zibileko eztabaida politikoan burgesiaren fakzioen itzalpetik atera eta gorputz propioa eskuratu zuten. Langileak, lehen aldiz beren gizarte zibil propioa eratzeko erantzukizuna usaintzen hasi zirenean, beren aurreko belaunaldiko arbasoen ideiak berreskuratzen hasi ziren. Gorago aipatutako sozialismo utopikoaren ideia, gaur egungo ESSak horren era baldarrean erreplikatzen duena, helduleku onena izan ziren askorentzat. Kooperatiben ekoizpen alternatiboa orokortzeak aukera ona zirudien. Luis Blanc, adibidez, Estatuak babestutako ekoizpen kooperatiben bidez sozialismoa eraikitzeaz aritu zen, lehen urte horietan bertan aurreko eztabaidetatik abiatuta. Era berean, luzea izan zen ideia berberekin (ñabardura txikiekin) ordena soziala eraldatzeko grina piztuta zuten langile masak liluratu zituzten hitzontzien ilara, besteak beste, Lasalle, Bernstein, Proudhon eta Bakunin.

Marxek argi utzi bazuen ere merkatuaren brontzezko legeak lan kooperatiboa enpresa edo enpresa zirkulu lokal batera mugatzea erabat antzua bihurtzen zuela (gerora militante komunista ugarik behin eta berriro egin behar izan duten modura), ez zen ebidentzia horretan geratu. Eta ez: 60ko hamarkada inguruan Marxek lehen aipatu ditugun iruzurtri horietako askorekin Internazionalaren baitan mahaia partekatu behar izan zuenean kooperatibismoari emandako laudorioak ez ziren kontzesio taktiko hutsak. *Ideologia alemaniarra* bezalako testu goiztiarretatik aipatzen zuten Marxek eta Engelsek lanaren banaketa sozialak (kapitala eta lanaren artekoak, alegia) behartutako kooperazioaren eta borondatezko kooperazioaren arteko ezberdintasuna. Printzipio kooperatibistak benetan errespetatzen diren kooperatibetan (ez, ordea, MCCkoaren moduko esplotazioaren monumentu iraingarrietan) sozialismoaren lehen zantzuak irudikatzen bertutea dagoela defendatzen zuten Internazionalaren adierazpenean Marxen firma nabaritzen da:

«Mugimendu kooperatiboa klase antagonismoan oinarrituta dagoen egungo gizartearen indar eraldatzaileetako bat dela aitortzen dugu. Egungo sistema despotikoa, lana kapitalaren mende jartzen duena, ekoizle aske eta berdinen sistema errepublikarrak ordezkari deza-keela frogatzea da garrantzitsua»

Parisko Komunak lanaren kooperazio edo ekoizleen asoziazio askea eta borondatezkoa lortzeko aukera errealtate bihurtu zuen. Hona hemen *Gerra zibila Frantzia* testuan, adibidez, Marxek kooperatibismo ezberdinen arteko diferentzia letra larriaz adierazten duen unea:

«[Parisko Komunak] Jabetza indibiduala errealtate bihurtu nahi zuen, ekoizpen-bideak, lurra eta kapitala, gaur egun esklabo bihurtzeko eta lana ustiatzeko bitartekoak direnak, lan libre eta elkartuko tresna soil bihurtuz. Baina hori komunismoa da, egin ezinezko komunismoa! Hala ere, klase menderatzaileetako banakoak, egungo sistemak jarraitzeko ezintasunaz ohar-tzeko bezain adimentsuak direnak –eta ez dira gutxi– ekoizpen kooperatiboko apostolu gogaikarri eta garratz bihurtu dira. Hala ere, produkzio kooperatiboak itxurakeria eta engainua baino zerbait gehiago izan behar badu; sistema kapitalista ordezkatu behar badu; kooperatiba-sozietate elkartuek ekoizpen nazionala plan komun baten arabera arautu behar badute, plan hori euren kontrolpean hartuz eta ekoizpen kapitalistaren ondorio saihetsezinak diren etengabeko anarkiari eta aldikako konbultsioei amaiera emanez, zer izango da orduan, jaunok, komunismoa baino gehiago, komunismo “gauzagarria”?»

Ekonomia politikoaren kritika da, hain zuzen ere, kooperatiba kapitalaren botere ahalguztiduna betikotzeko edo gizarte sozialista berria eraikitze-ko pieza izatearen arteko muga marrazten duena. “Plan komun” horrek askatzen du merkatuaren esklabo den fabrika barneko anaitasuna:

«Imajina dezagun, azkenik, ekoizpen-baliabide arruntekin lan egiten duten eta, hitzartutako plan baten arabera, gizarte-lanerako indar bakar gisa euren indar indibidual ugariak erabiltzen dituzten gizon librean elkargune bat».



«Langile elkartuen produktu osoa produktu soziala da. Alde batek berriro balio du ekoizpen-bitarteko gisa eta soziala izaten jarraitzen du. Baina bestea kontsumitu egiten da eta, beraz, denen artean banatu behar da. Banatzeko modua aldatu egingo da sozietatearen organismo ekoizlearen eta langileen garapen historikoaren arabera. Demagun, merkatu-ekoizpenarekin paralelismo bat ezartzeko soilik, langile bakoitzari ematen zaion zatia bere lan-denborarekiko proportzionala dela, horrela lan-denborak eginkizun bikoitza izango luke. Alde batetik, gizartean duen banaketak funtzioen eta premien arteko proportzio zehatza arautzen du; bestetik, ekoizle bakoitzak lan komunean duen zati indibiduala neurtzen du, eta, aldi berean, kontsumorako gordetako produktu komunaren zatian dagokion parte. Gizakiek beren lanetan eta haietatik datozen objektu erabilgarriekin dituzten harreman sozialak sinpleak eta garde-nak dira hemen, bai ekoizpenean, bai banaketan». ●

Kooperatibak, langileria erreformistaren utopismotik oligarkiaren altzora

Testua — **Arteka**

Irudia — **Zoe Martikorena**

«¿Qué es “reparto equitativo”
¿No afirman los burgueses que
el reparto actual es “equitativo”?
¿Y no es éste, en efecto, el único
reparto “equitativo” que cabe,
sobre la base del modo actual de
producción? ¿Acaso las relaciones
económicas son reguladas
por los conceptos jurídicos?
¿No surgen, por el contrario,
las relaciones jurídicas de las
relaciones económicas? ¿No se
forjan también los sectarios
socialistas las más variadas ideas
acerca del reparto “equitativo”?»

KARL MARX, *Crítica al
programa de Gotha*

Erreportaje honek kooperatiben baitako klase-estratifikazioak hartzen duen formaren inguruko gako batzuk aipatuko ditu, proletalgoak kooperatiben baitan duen lekuari erreparatzeko. Ba al da tokirik proletalgoarentzat hemen eta orain ezagutzen ditugun kooperatiba desberdinetan? Zeintzuk dira bertako baldintza ekonomiko eta politikoak?


Zuzenbide burgesaren baitan zehazten den kontzeptuaren arabera, kooperatiba langile-elkarte baten jabego juridikoaren pean dagoen enpresa bat da. Ulerkera horrek, definizioz, askoz konplexuagoa den errealtate materialaren muturreko abstrakzio bat egiten du, ekoizpen harreman sozial kapitalistak desitxuratzu eta horien gaineko kontrola interpretatzeko kategoria burgesak ezarri. Badira langile hutsez osatutako kooperatiba txikiak, ez dutenak inolako kapital metaketarik gauzatzen eta bertako kideen lan-indarra erreproduzitzea ozta-ozta lortzen dutenak. Beste zenbait kooperatiba, aldiz, korporazio erraldoiak dira, hierarkia nabarmenekin, eta euren barnean proletalgoaren lan indarraren gaineko esplotazioaz argi eta garbi probesten diren figura burokratikoak daude. Zentzu komunean txertatuta dagoen kooperatibaren kontzeptu juridiko burgesak errealtate material hori ezkutatzeko duela esan daiteke, eta, beraz, ekonomia politikoaren kritikaren bidez gezurtatzea komeni da.

Ilusio kooperatibisten arabera, kapitalismoaren lege-markoaren baitan langileek ekoizpenaren gaineko kontrola izateko eskubidea dutela eman dezake, jabego pribatuaren printzipioa hautsi gabe, estatu burgesarekin bizikidetzat baketsuan eta borondate hutsaren ondorioz. Hau da, kooperatibak, bere horretan, alternatiba ekonomiko zein politiko aproposa izan daitezkeela esatea, langileriak eta burgesiak merkatuan lehiatzeko aukera erreal berdinak dituztela ontzat ematea da, eta euren artean dauden desoreka materialak aitortzen diren kasuetan ere, kooperatibak parametro horien baitan jardunez, *alternatiba etikoagoa* izan daitezkeela ondorioztatu ohi da; ekoizpen-unitate partikularren baitako «iraultzarik gabeko sozialismo» moduko bat. Horregatik azpimarratzen du *Cuadernos de Negación* (CdN) argitalpen-kolektiboak kooperatibak edo «autogestioa» ez direla kapitalismoaren alternatiba, bere baitako alternantzia baizik^[1]. Zentzu horretan, autogestioa edo kooperatiben eredua ez da «auto-esplotazio» gisa errefusatu behar, «kapitalaren zerbitzura dagoen esplotazioaren autogestio gisa baizik». Ez baita ahaztu behar, subjektu esplotatzailea ez dela patroia bat ala bestea, eta esplotatua ez dela proletario bat ala bestea; burgesia da, klase gisa, proletalgo osoa esplotatzen duena, esplotazioaren administrazio-eredua edozein delarik ere. Eta zer esan nahi du horrek? Funtsean, burgesiaren eta proletalgoaren arteko antagonismoa ez dagoela norbanakoaren arteko harreman pertsonaletan, ekoizpen harreman sozial orokorretan baizik. Hau da, desjabetu zein esplotatu kondiziotik ezin gara askatu norberaren borondatez, kontzientzia-ariketa hutsez edo autonomo kuota ordaintzearen bidez. Esplotazioa ez dagoelako jasaten dugun gogoan, horri buruz egin ditza-kegun interpretazioetan, nagusi baten presentzia fisikoa edota izendegi juridikoan, ekoizpen baldintza orokorretan baizik. Baldintza horietan ikusten duguna da langileriak ez duela ekoiz-

pen bitartekoen gaineko inolako kontrolik, ez lehengaietan, ez manufakturan, ez banaketan, ez publizitatean, ez eta kontsumoan ere. Beharginek zer-txobait aurrezteko lortu eta kooperatibak eratu arren, ekoizpen sozialaren oso proportzio murriztuta eta sinpleak kudeatu ahal izango dituzte kapitalismoaren baitan. Ondorioz, errealitate material berberari erreferentzia egiteko terminoak moldatzea edo bertan «asmo onez aritzea» ez da aski lan-indarraren esplotazioaren aboliziorako. Esplotazioa ezkutatzeak edo desitxuratzek, kontrara, gizarte kapitalistaren klase-izaera ezkutatzea eta betikotzea dakar. Esplotazioa ez baita gradu kontu kuantitatiboa, «ezin gara gehiago edo gutxiago esplotatuta egon» gogorarazten du CdN-k.

Baina ez hori bakarrik. Gogoan izan behar da merkatua norbanakoen borondatearekiko dinamika autonomo bat den heinean, ez dagoela langileek osatutako merkatu «on» baten eta kapitalista handiek kontrolatutako «txar» baten arteko bereizketarik; merkatua bat eta bakarra da. Berdin dio merkantzia zein ekoizle pribatuk ekoitzi duen edota nola ekoitzi duen, baldin eta irabazia sortzen badu. Irabazia sortzeko ezinbestekoa da ekoizleen lan pribatua gainontzeko guztienarekin batera merkatuan ekibalentzia-harremanetan jartzea, lan sozial gisa. Ikuspegi horretatik, kooperatibek dabilten lan-indarra merkantzia bat gehiago baino ez da, eta hari esleitzen zaizkion gainontzeko partikularitasun guztiak, berriz, merkantziak salgarriago egiteko marketina. Zentzu horretan, kooperatibek euren marketin-diskurtso propioa garatu dutela argitzen du CdN-k: «Ez du axola freskagarriak egarririk ez kentzea, jaiaren sinonimoa bada, gozoki batek ez du elikatu behar, «dibertigarria» izan behar du, eta kooperatiban egindako produktu bat, ezer baino lehen, besteak baino zuzenagoa da, eta, beraz, gehiago lotzen da politika batekin asebetetzearekin baino, edo behar politiko faltsu bat asetzearekin»^[2].

***Desjabetu zein esplotatu
kondiziotik ezin gara askatu
norberaren borondatez,
kontzientzia-ariketa
hutsez edo autonomo
kuota ordaintzearen bidez.
Esplotazioa ez dagoelako
jasaten dugunon gogoan,
horri buruz egin ditzakegun
interpretazioetan, nagusi
baten presentzia fisikoan edota
izendegi juridikoan, ekoizpen
baldintza orokorretan baizik***



Horregatik, ohikoa da kooperatibismoaren baitan ondokoa bezalako adierazpenak entzutea: «Kapitalismoaren mugetan edota bertatik at ekoitzi dezakegu, baina arazoa produktuak merkaturatu behar ditugunean dator». Ideia hori erabat erratua da, ekoizpena, trukea eta kontsumoa modu isolatuan ulertzen dituelako prozesu bakar baten momentu desberdin moduan ulertu beharrean. Ekoizle kooperatibistak ez du zer ekoitzi behar duen erabakitzen, gizarte burgesaren beharren arabera ekoizten du. «Bere merkantzia saltzera “irteten” denean ez da merkatuarekin aurkitzen, merkatuak jada ezarri du zer eta nola ekoitzi behar duen, horren posibilitateak eta helburuak», zehazten du CdN-k. Izan ere, gizarte kapitalistan ekoizpen oro merkantzien ekoizpena da, trukerako ekoizpena. Auzia, beraz, ez da zirkulazioaren edo banaketaren esferara murrizten, eta bertan ez dira «modu kapitalistan» eta «modu ez-kapitalistetan» ekoiztako merkantziak aurkitzen.


KLASE-FILTROA

Sarrera-lerroetan kooperatibek langileen aurrean historikoki bete izan duten funtzio ideologiko antikomunista orokorra problematizatu dugu modu sinplean. Soldatapeko lanaren kudeaketa-eredu horren bidez langile guztiak enplegatzea estrukturalki ezinezkoa dela bistakoa da, ordea, eta hori gogorarazteaz arduratzen dira estatututako aparatuek, lan-merkatua eta proletarioaren gabezia materialak. Bertatik abiatuta ikus daitezke propaganda erreformista utopikoak errealitatean aurkitzen dituen muga estrukturalak. Jarraian, bada, kooperatibek proletarioa ekoizpen bitartekoen jabetzatik aldentuta, produktu sozialaren banaketan baztertuta eta gainbalioaren erauzketan esplotatuta mantentzen duten modu espezifikoari erreparatuko diogu, gure ingurura begiratuta.

Kooperatibak eratzeke edo eratu-tako kooperatiba bateko kide izateko hasierako inbertsio bat egin behar da, herrialde bakoitzeko legediak edota kooperatiba bakoitzeko estatutuek zehazten duten gutxieneko kopurua-ren arabera. Hori ordaintzeko, aurrez-kietara, kredituetara edota familiaren diru-laguntzetara jotzea da ohikoena, hurrenez hurren. Baliabide horien eskuragarritasunak klase izaera nabarmena du, eta, zehatzago esanda, klase-estratifikazioaren arabera izaten da. Nola sartuko da proletarioa kooperatibetan, Espainiako Estatutuan aurrezteko gaitasuna duten unitate familiarak hamarretik hiru baino ez badira?^[3] Zenbat izango dira kooperatibetarako sarbidea izango duten proletarioak Espainiako Estatutuko hamar biztanletik lau etxebizitzagatik «gainzorpetuta» bizi badira, hau da, sektore horrek hileroko diru-sarreraren % 40 baino gehiago etxearekin lotutako ordaintzetara bideratu behar badu?^[4] Egiaztatu ahal izan denez, bost biztanletik batek hilean 400 euroko ondarearen baliokidea dauka kontu korrontean, hots, estatu mailan 10 milioi lagun inguruk etxeko errenta ordaintzeko zailtasunak dituzte ezusteko gastuen aurrean^[5]. Alokairuen batez besteko prezioa hilean 1.373 eurora iritsi zen 2023ko urtarrilean, eta asko dira gastuoi aurre egiteko gorriak ikusten dituzten pertsonak. Zer esanik ez urtebeteen % 15 garestitu diren elikagaien prezioari, azken sei urteetan % 73 inguru garestitu den butano gasa edota erregaiei zein argindarraren azken igoerak gehitzen badizkiogu. Pobretze testuinguruaren erdian proletarioa kooperatibetan inbertitzeko eskatzea, etxea berotzeko altzariak sutara botatzen ari denari zurezko taila bat egin dezan eskatzea bezalakoxea da.

Langile klasearen aurrezkiak burgesiaren irabazien mesedetan xurgatzen dituen koiuntura inflazionarioaz haratago, momentu historiko honetan badira proletalgoari zenbait kooperatibetara (arrakastatsuenetara) sarbidea are gehiago zailtzen dioten elementu egonkorrak ere, hezkuntzarena, esaterako.

Industria, berrikuntza eta finantzak bezalako arloetan aritzen diren kooperatibetan sartzeko gaur egun ez da aski ekarpen ekonomikoak egitea, geroz eta titulazio akademiko altuagoak eta kompetentzia zorrotzagoak eskatzen baitira. Unibertsitate titulua bere horretan ere ez da nahikoa, gure inguruko kooperatiba lehiakorrenek lan-merkatuan preziatuenak diren hezkuntza-kredentzialak hautatzen baitituzte lanaren espezializazio maila handiari erantzuteko. Ikasketa horiek unibertsitate pribatuetan eskuratzen dira gehienbat, eta publikoetako exigentzia akademikoa horren da altua, ikasketak lanaldi osoko lanpostu batekin uztartzea bateraezina dela, familiak «kultur-kapital» jakin bat izatea galdegiten duela, eta abar. Hau da, enpresan esku hutsik eta «lan egiteko gogoz» sartu, eta lehen soldatekin ekarpena egitearen bidez ibilbide profesional luze, egonkor eta oparo bat izatearen pagotxa amaitzen ari da. Mendebaldeko erdigune inperialistako kooperatiba arrakastatsuenek gaur egun ez dute kualifikazio baxuko lan-indarra xurgatzeko XX. mendean izan zuten gaitasuna.



Pobretze testuinguruaren erdian proletalgoari kooperatibetan inbertitzeko eskatzea, etxea berotzeko altzariak sutara botatzen ari denari zurezko taila bat egin dezan eskatzea bezalakoxea da


Horren erakusle da kooperatibetan lan egiten duen biztanleria erlatiboki baxua dela. Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan, esaterako, 58.700 lagunek egiten zuten lan kooperatibetan 2018an. Kopuru esanguratsua bada ere, gogoan izan behar da une horretan hiru lurraldeetan enplegatuta zegoen biztanleriaren % 6a suposatzen zuela horrek; ez behargin masa osoaren % 6a, enplegua zutenena baizik^[6]. Lan-

gabeak eta langile klaseko bestelako sektoreak ere ekuazioan sartuko bagenitu, kooperatibek enplegatzen duten langileen proportzioa are murriztagoa dela konturatuko ginateke. Proletario-tza hedatuen dagoen adin-segmentuak kooperatibetan duen presentzia urria ere azpimarragarria da: 2020an kooperatibetan lan egiten zuten gazteen proportzioa ozta-ozta iristen zen % 1,2ra^[7].

Bestalde, Eusko Jaurlaritzak 2019an onartutako Kooperatiben Legearekin, bazkide ez diren langileen ehunekoa % 30a izatea baimendu zuen; aurreko araudiak baino % 5 gehiago, alegia^[8].

Neurriak krisi sasoian «lan-malgutasuna» deiturikoa ahalbidetzen du, hots, lan-indarraren kostuak aurrezte. Nola? Bazkide ez den eta lan-baldintza kaxkarragoak dituen plantillaren proportzioa handituta. Bestalde, zuzendaritzako kideen baitan «bazkide ez diren kudeatzaileak» txertatzeko baimena ere eman zieten, aurrerago ikusiko dugun moduan, eurek «kooperatiben kudeaketaren profesionalizazioa» deitzen dutena bultzatzeko. Ondorioz, krisi garaietan irabaziak banatzen dituzten kooperatibetako goi-mailako langileentzako sarbidea geroz eta estuagoa dela ikus daiteke batetik, eta bestetik, lan-baldintza okerragoak dituzten langileen kontratazioa espontzialki hazten dela. Proletarioak kooperatibetan egon daitezke, baina gonbidatu moduan eta menpeko posizio batean baino ez.

Zirkuitu ekonomiko klasista horren barrenak eta egungo egoera modu zehatzagoan ezagutzeko, Mondragon Korporazioan lan egiten duen pertsona batengana jo dugu. Ekarpen edo partehartzeen inguruan mintzatu da lehenbizi, eta argiki dio: «Partehartzeak, kapital ekarpenak, urtez urte igotzen doaz, hasierako zenbatekoa berdinduz. Hori “ongi” funtzionatzten duten kooperatibetan posible da, hau da, diru-sarreraren eta dibidenduak banatu beharreko kooperatibisten kopuruaren arteko erlazioa positiboa de-nean». Hala ere, gogora ekarri du 2011n lege-moldaketa batzuk izan zirela, *gauzak ongi ez doazen* kasuetarako. *Fagor Electrodomésticos* hartzekodunen konkurtsoan sartu zenez geroztik, galerak badaude, ekarpenak ez dira itzuliko, edo dagokiona baino zenbateko txikiagoan itzuliko dira. Gaur egun Euskal Herrian erretirotik gertu dauden hainbat pertsona 18 urte zituztenetik aritu dira kooperatibetan lanean; bere garaian 9.000 euroko ekarpenak egin-



go zituztenak, esate baterako. Ekarpen haiek gaur egun «300.000 euro edo gehiago» balio dezaketela azpimarra-tu du kideak. Ordaintzeko gehienezko epea bost urtekoa denez, kooperatiba galeretan badago eta horren frogak aurkeztu baditzake, «enpresak azke-nean askoz gutxiago ordainduko due-la», gogoratu du kooperatibistak. Hala-ko kasu ugari epaitegietara iritsi diren arren, askotan akordioak lortzen dire-la dio: «Galera erlatibo bat izan arren, 9.000 euroko inbertsio batetik 150.000 euro ateratzea ez dago batere gaizki».

Krisi garaietan irabaziak banatzen dituzten kooperatibetako goi-mailako langileentzako sarbidea geroz eta estuagoa dela ikus daiteke batetik, eta bestetik, lan-baldintza okerragoak dituzten langileen kontratazioa esponentzialki hazten dela. Proletarioak kooperatibetan egon daitezke, baina gonbidatu moduan eta menpeko posizio batean baino ez

KRISIALDIKO KOOPERATIBISMOA

Aurrekoa ez da azken hamarkadako krisialdiak Euskal Herriko kooperatibismoan ekarri duen aldaketa bakarra. Mondragoneko kideak azaldu duenez, Fagorreko kasuaren ostean Mondragon Korporazioak Udalaitez S. Coop. izeneko kooperatiba sortu zuen, egoitza sozialik ez duena eta Aldi Baterako Laneko Enpresa (ABLE) moduan erabiltzen dutena. «Zintzilik geratu ziren kooperatibistei “mesede” modura egin omen zuten», aipatu du. Beraz, legalki arraroa badirudi ere, langile horiek kooperatibaz-kooperatiba kokatzera bideratuta dagoen ABLE moduko bat da, funtsean: «Lehenik kooperatiba hontan uzten zaitut, Udalaitezko bazkide izaten jarraitzen duzu, baina beste kooperatiba batean kobratzen duzu, han azkenean ez bazara bazkide gisa onartua eta kaleratzen bazaituzte, beste batera eramango zaitut, eta bestela, beste batera», dio. Beste kooperatiba batzuetako bazkide izatea lortzen ez dutenek urte batzuk eman ditzakete horrela; aldi baterako lanak egiten eta lanik egiten ez dutenean langabezia kobratzen. Udalaitez, ordea, ez da iraganeko kontua: «Hartzekodunen konkurtsoei dagokionez, orain Igorren (Bizkaia) matrizeko konkurtso bat dago, eta hor ere Udalaitez erabiltzen ari dira», aitortu du kideak.

Mondragon Korporazioak funts galdurako poltsa moduko bat dauka, hondoratzen hasten diren kooperatibak salbatzeko. Halako kasuetan, Banco Santander, La Caixa eta bestelako bankuek Korporazioari debekatu egiten diote operazio horietatik etekinik ateratzea. Hala ere, bistan da erreskate funts horren finantzazioak arazo ugari dakartzala Mondragonen baitan. Ulma eta Oronaren kasuetan ikusienez, taldeko enpresa errentagarrienek geroz eta mesfidantza handiagoa dute euren irabazien zati bat bertara bideratzeko. Bestalde, Mondragon Korporazioko iturriak ziurtatu duenez, hartzekodunen konkurtsoetan murgilduta dauden enpresetan «ingeniaritza juridiko zein fiskal ugari» baliatzen dute, batez ere higiezinak hustu eta saltzea bezalako operazio sarraskijaleak egiteko.

Bestalde, Ikerketa eta Garapen arloan (I+G) inbertitzeko gaitasuna duten kooperatibei erraztasun fiskal ugari ematen dizkie estatuak, eta berdin «proiektu sozial zein kulturaletan» sartzen badira. Kidearen ustez, «bulegoetan errentagarritasun estrategien inguruan pentsatzen da etengabe, eta lantokiko azken lerrora oso informazio gutxi heltzen da». Zein puntutaraino daki langile kooperatibista arruntak bere enpresan gertatzen ari denaren inguruan? Kideak argi dauka: «Hondoratuta ez dauden arte, ez da batere kontziente».

***Fagorreko kasuaren ostean
Mondragon Korporazioak Udalaitz
S. Coop. izeneko kooperatiba sortu
zuen, egoitza sozialik ez duena eta
Aldi Baterako Laneko Enpresa
(ABLE) moduan erabiltzen dutena***



FILIALAK

Kooperatiba arrakastatsuen baitan bada proletalgora eta langile aristokrazia bereizten dituen lerro lodi bat: filialena. Izan ere, denek S.L edo S.A. kategoria enpresarialen baitan kokatzen diren filialak dituzte, eta justuki, lan baldintza onenak dituzten langileak, bazkideak, sozietate matrizean aritzen dira, ez filialetan. Ezaguna den bezala, filial gehienak Hego Amerikan, Afrikan, Txinan edo Ekialdeko Europan daude. Eremu geografiko horietan datza matrizeen sostengu ekonomiko guztia. Periferietako filialetan dauden lan-baldintzengatik ez balitz, zentro inperialistako langile-patriziatuaren soldatak, mediku-aseguru pribatuak, erretirorako urtero sortzen diren kapital-errendimenduak, oporrak, autoak eta bestelako prebendak karta-gaztelu bat bezala eroriko lirатеke.

Baina filial eta matrize arteko zati-
ketaren funtzioa ez da klase-banaketa
zein erreprodukzioan geratzen. Su-hesi
juridiko eta morala ere bada: «Segur-
tasun juridikoa ematen du. Proiektu bat
gaizki ateratzen bada, hango SLk
abortatu egiten du eta ez dio
kooperatibari eragiten, onuretatik
haratago», azaldu du Mondragoneko
langileak. Are gehiago, filialen bidez
«ustelkeria eta arrisku-indize
handiko makroproiektuetan» ere
murgiltzen direla ziurtatu du. Aitortu
duenez, kooperatibetako aholkulari
fiskalak «billetez betetako
mailetekin» itzultzen dira Euskal He-
rrira. «Gero diru hori nola edo hala
garbitzeaz arduratzen dira. Baina ai-
reportuetako aduanetatik nola pasa-
tzen duten? Hori misterio hutsa da»,
gaineratu du. Gauza bat argi du ordea:
«Horrelako eragiketetan zein atzerri-
ko filialen salerosketan diru asko mu-
gitzen da».

Kooperatiben Legearen 2019ko
erreforman aipatutako «kooperatiben
profesionalizazioaren» eskutik, «ku-
deatzaile» eta «aholkularien» figurak
ugaritu dira. Mondragoneko langileak
Oronako adibidearekin azaldu du zer-
tan datzan, bai eta filialek duen ha-
rremana ere: «Lehendakari bat zegoen
Oronako Kontseilu Errektorean, eta
hori izan da irteera-prozesu osoa bul-
tztatzeaz arduratu dena. Bada, pertso-
na hori jada ez da presidentea». Azaldu
duenez, kontratuak egiteaz arduratzen
den SA bat du Oronak, eta bertako di-
rua kooperatibara joaten da. Hortik au-
rrera ingeniarietza fiskal konplexu oso
bat dagoela argitu du: «Pertsona hori
SA horretako presidentea da. Horrela-
ko figurek dibidenduak kobratzen di-
tuzte, kapitalistak direlako, baina koo-
peratibetan bazkide kooperatibo gisa
agertzen dira, kooperatibarentzat lan
egin gabe, aholkulari gisa baizik». Mo-
du xumeagoan esateko, berez filialean
lan egiten duten eta filialek dibiden-
duak kobratzen dituzten aholkulari
bazkide kooperatiboak daude.

KOOPERATIBISMOAREN MISERIA ANTIPROLETARIOA

Gaur gaurkoz Espainiako Estatu-
ko espetxeetan langileak esplotatzen
dituzten 181 enpresen artean bada
kooperatibarik. Alecop Kooperatiba
Sozietate Mugatuak, Mondragon Lin-
guarekin elkartuta dagoen filialak,
2017an Langraiz Okako (Araba) espe-
txean presoan lan-indarra erabiltzen
zuen kableen ekoizpenean (9). 2022an
Barne Ministerioarekin hitzarmenak
zituzten enpresen zerrenda aztertuz
gero, Alecopek Espetxe Laneko eta
Enplegurako Prestakuntzako Estatu-
ko Erakundearekin (TPFE) duen akor-
dioari eusten ziola ikus daiteke (10).
Seguruenik, Alecop ez da presoak es-
plotatu dituen kooperatiba bakarra
izango, baina espetxeetako harresien
barruan gertatzen den ia guztia oso
opakua denez, ezin dugu ziur esan
zeintzuk diren gainerakoak.

***Periferietako filialetan dauden lan-
baldintzengatik ez balitz, zentro
inperialistako langile-patriziatuaren
soldatak, mediku-aseguru pribatuak,
erretirorako urtero sortzen diren
kapital-errendimenduak, oporrak,
autoak eta bestelako prebendak karta-
gaztelu bat bezala eroriko lirатеke***

(...) sindikatuak kooperatiben egunerokoan ez dute inolako botererik ez zentzurik, langile aristokraziak enpresako ordezkaritza-organoetan zuzenean defendatzen baititu bere interesak, langile zein enpresari gisa

Espainiako Estatuko espetxeetako lan-baldintzen inguruan badakigu zer-bait ordea, autoritateak eta komunikabide gehienak estaltzen saiatzen diren arren. Lehenik eta behin, espetxeko lan-harremanak ez dira Langileen Estatutuaren bidez arautzen, 782/01 Errege Dekretuaren bidez baizik. Horren arabera, espetxeetako lana «izaera bereziko lan-harremana» litzateke, hots, ez ditu langile arruntzen eskubide berdinak bermatzen eta tirania burgesari bidea libre uzten dio: soldatak legezko gutxienekoa baino askoz baxuago ordaintzen dira (hilean 200 eta 300 euro artean), ez dute eskubiderik ez oporraldirako, ez sindikatzeko, ez gaixotasunbajarik hartzeko, kaleratzen badituzte ez dute aparteko ordainsaririk ez kitapenik, enpresak ez die ordaintzen lanik ez badago, eta abar. El Saltok ateratako kalkuluen arabera, 2022ko ekainean Espainiako Estatuko espetxeetako tailerretan lan egiten zuten presoek orduko 3,98 euro jasotzen zituzten batez beste. Aurrekoak espetxeko lan-baldintza «onenak» lirarteke, izan ere, presondegietak hainbat ekonomato, sukalde zein kafetegitako lanak zuzenean ez baitira ordaindu ere egiten. Aurreko guztia gutxi balitz, enpresa horiek diru-laguntza publikoak ere jasotzen dituzte presoak esplotatzeagatik.

ESKUBIDE POLITIKOAK

Kooperatibetan, espetxeetan ez bezala, sindikatzeko eskubidea aitortuta dago; edo ez dago debeku espresurik, hobeto esanda. Izan ere, kooperatibetan ez dago langileen ordezkaritza-organorik, hau da, sindikatuak ez daude kooperatiben baitan antolatuta. «Langileak norbanako gisa sindikatuta egon daitezke dagozkion kuotak ordainduta horrek dakartzan eskubideekin (abokatua, etab.), baina enpresen barruan ez dago inolako sindikaturik», azaldu du Mondragoneko iturriak. Horren ordezkari, Kontseilu Soziala deituriko organoak daude, eta horiek dira, ustez, bazkideen (ez langileen) interesak babesten dituztenak. Gogoan izan behar baita Kontseilu Sozial berbera aldi berean enpresaren parte dela, eta organo horrek ez dituela bazkideak ez diren langileen interesak politikoki ordezkatzeko. Beraz, hutsune horretan azaldu ohi dira sindikalgintza eta langile borrokaren bestelako adierazpenak kooperatiben baitan: besteren konturako soldatapeko langileen proportzio altuagoak dauden tokian, kooperatibetako langilariaren sektore proletariatuetan. Gainontzean, sindikatuak kooperatiben egunerokoan ez dute inolako botererik ez zentzurik, langile aristokraziak enpresako ordezkaritza-organoetan zuzenean defendatzen baititu bere interesak, langile zein enpresari gisa. Mondragoneko kideak zentzu berean deskribatzen ditu Kontseilu Sozialetakordezkaritzak: «Historikoki kutsu sozialdemokrata hori izan dute». ●



ERREFERENTZIAK

[1] Cuadernos de Negación, 12. tomo. *Crítica de la autogestión*. 2018.

[2] Ibídem.

[3] GEDAR LANGILE KAZETA. *Espainiako Estatuko hamar familiatik hiruk baino ezin dezakete aurreztu, indarrean den inflazioaren eraginez*. (15 de julio de 2022). gedar.eus.

[4] GEDAR LANGILE KAZETA. *Alokairuaren prezioak maximo historikoetan daude Espainiako Estatuko hiriburu gehienetan* (15 de noviembre de 2022). gedar.eus.

[5] GEDAR LANGILE KAZETA. *Espainiako Estatuko bost biztanletik batek 400 euroko ondarearen baliokidea dauka kontu korrontean* (11 de noviembre de 2022). gedar.eus.

[6] Larrakoetxea, C. *La futura Ley vasca de cooperativas permitirá que haya más trabajadores no socios* (18 de diciembre de 2018). elcorreo.com.

[7] Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa, Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Saila. *Gazteen Euskal Behatokia* (Koord.) *Euskadiko Gazteak 2020/2021*. Gasteiz, 2022. pág.24

[8] Larrakoetxea, C. *La futura Ley vasca de cooperativas permitirá que haya más trabajadores no socios* (18 de diciembre de 2018). elcorreo.com

[9] Requena, A. *120 empresas emplean a miles de presos sin apenas derechos laborales* (16 de abril de 2017). eldiario.es.

[10] Poloi. *Trabajando por cuatro euros a la hora en la cárcel* (29 de octubre de 2022). elsalto.com.

Krabelinek Portugalgo kaleak hartu zituztenekoa



Kiara Angulo



HISTORIA



XX. mendea urte gutxian gertakari asko jasotzen dituen mendea da, non gizateria, bere askatasuna etorkizun hurbilean ikustetik, betiko kateen artean estuenekin lotuta egon zitekeela irudikatzeraino pasa zen. Zehatzagoak izanda, garai hartan, ezabatu egin zituzten munduko hamaika txokotan sistema demokratiko liberalak egonkortu izanaren ondorioz ordurako aitortutzat ematen ziren eskubide eta askatasun orokorrak. Gertakari horien artean dago gaurkoan aztergai dugun Portugalgo Krabelinen Iraultza bera ere (1974), zeinak amaiera eman zion XX. mendean European egon zen diktadura luzeenari (1926-1974).

XX. MENDEA ETA DIKTADURAK

Aurreratu bezala, XX. mendeak urte korapilatsuak hartzen ditu, eta horrek analisirako gertakari ugari uzten dizkigu gaur egungo ikuspegitik. Gertakari horien adibide dira mende horretan zehar munduko bazter askotan indarrean egon ziren diktadurak. Aurreko mendeetan zehar nekez lortutako eta jada ukaezinak ziruditen aurrerapenei bizkar eman zieten, gertakariok krisi eta gerra testuinguruan erradikalizatu ziren hegala kontserbatzaileek eskubide oro kolokan jartzea ekarri zuten^[1]. Horrek, era berean, ateak ireki zituzten zentzu askotan paradoxikoak ziren prozesu batzuei; izan ere, aurreko urteetan garatzen ari zen kapitalismoa vs komunismoa antagonismo konponezinaren testuinguruak bazter askotan bi bloke horien arteko aliantza antifaxista bat egotea bultzatu zuen, non gidaritza politikoa korrante batek edo besteak zuen lekuaren eta indar politikoen arabera. Finean, mugimendu kontrairaultzaile batzuek, hala nola faxismoak, kolokan jarri zuten gizartearen modernizazio kapitalistarako edo komunistarako garai iraultzailerik izatea^[2].

PORTUGALGO DIKTADURAREN EZAUGARRI NAGUSIAK

Hainbat hamarkadetakoz ezegonkortasun politikoa bizi izan zuen Portugal; sistema monarkiko konstituzionalak porrot egin zuen, eta 1910ean Portugalgo Lehenengo Errepublika ezarri zen. Erregimen parlamentario horrek, ordea, ezegonkortasun politiko eta sozial handia eragin zuen. Horrela, 1926ko maiatzaren 28an, estatu kolpe odolgabe baten bitartez, amaiera eman zitzaion dekadentzian zegoen sistema hari, eta hasiera Europako diktadura luzeena izango zenari. Erregimen autoritario horrek bi aldi izan zituen; lehena, 1926-1932 urte tarteari dagokion aldia izan zen, zeinetan Estatuaren indar armatuek izan zuten erregimenaren kontrol zuzena. Bigarren aldia, lehen urte haietako desgobernua konpontzeko asmoz sortutako Estado Novo («Estatu Berria»), «Portugalgo Bigarren Errepublika» edota «Errepublika Korporatibo» izenez ezagutzen denari dagokio; hasiera batean Antonio de Oliveira Salazar izan zuen buru (1933-1968), eta, gerora, Marcelo Caetano (1968-1974)^[3].

Portugalgo ordena politiko berria historialariek «estatu organiko» modura kalifikatzen dituztenen artean kokatu izan da^[4]. Horiek erregimen kontserbadoreak izan ziren, eta ez zuten zuzenean ordena tradizionala bere horretan aldarrikatzen, baina oinarrian zituzten printzipioak bat zetozen gizarte feudalarekin, eta, indibidualismo liberala ukatuz, langile mugimenduari indartsua zen garai hartan kontrajartzeko helburua zuten^[2]. Zentzu horretan eta krisi sozialek eta ezegonkortasun politikoei sor zitzaizkien indar iraultzaileei beldurrez egonkortu zen aipatutako Estado Novoa. Salazar izan zen estatu berri hori zuzentzeko hautatua eta Portugalgo izaera faxista zuen estatu autoritarioaren norabidea eman zion figura^[5]. Izaera katoliko nabaria eta Elizaren babesa zituen erregimenak nazionalismo erradikala eta politika antikomunistak sustatu zituen, eta eskubide politiko, sozial eta laboral oro ukatu zuen, sindikatu bertikal bakarra onartu baitzuen, beste erregimen batzuek egin zuten bezala^[6]. Estatutik bereizten zen edonolako antolakuntza politikoak existitzeko aukerak ukatu zituen, eta, ondorioz, erregimenarekiko oposizioan antolatzen ziren mugimenduek klandestinitatera jo behar izan zuten^[7].



Izaera katoliko nabaria eta elizaren babesaren zuten erregimenak nazionalismo erradikala eta politika antikomunistak sustatu zituen, eta eskubide politiko, sozial eta laboral oro ukatu zituen, sindikatu bertikal bakarra onartu baitzuen, beste erregimen batzuek egin zuten bezala (Baer, 1992). Estatutik bereizten zen edonolako antolakuntza politikoak existitzeko aukerak ukatu zituen, eta, ondorioz, erregimenarekiko oposizioan antolatzen ziren mugimenduek klandestinitatera jo behar izan zuten

Ordea, Salazarren agintaldia krisian sartu zen 1958. urte inguruan. Diktadoreak geroz eta zailtasun gehiago zituen Portugalgo Inperioa zen horri eusteko; gastu ekonomikoak gorantz zihoazen, herriaren haserrearen handituz zihoan, geroz eta zailtasun gehiago zituen Europa mailako isolamenduari aurre egiteko... Horrek eta lider politikoa gaixotu izanak Salazar boteretik ordezkaturia izatea ekarri zuten. Horrela, 1968. urtean Marcelo Caetanok ordezkatu zuen. Caetanok erregimena krisialditik aterako zuen esperantza zegoen, helburu hauek baitzituen: Portugal zabaltzea, Europako herrialdeekin harremana sendotzea eta haren koloniak mantentzea, baina testuingurua korapilatzen hasia zegoen. Izan ere, batetik, auzi kolonialean bi faktore erabakigarri indartzen joan ziren: kostu ekonomikoa sostengaezina zen eta militarren atsekabea gero eta handiagoa, termino militarretan behintzat, militarrek behar-

tuta baitzeuden jada galdutzat ematen ziren gerra horietan etengabe, eta, gainera, baldintza eskasetan borrokatzea. Gaitasun militarrei dagokienez, urteak aurrera joan ahala, gerra horiei aterabidea emateko ezintasunak militarren haserrearen areagotzea ekarri zuen, gerra kolonialari konponbide politikoa emateko aldarria geroz eta ozenago oihukatzen baitzen^[3]. Bestetik, azken urteetan garatu zen bloke antifaxistaren indar eta erreferentzia ere azpimarratu behar da. Oposizioko mugimenduak erregimenaren hasieratik egon baziren ere, urte horietan erradikalizatu egin ziren, eta Salazarren krisialdiaren aurrean, zenbait ideologiak osatutako oposizio erradikal horrek zailtasunak jarri zizkion Caetanoren alternatiba erreformistari. Alta, eragin sozial handia izan zuen mugimendu bat izan bazen ere, ez zuen gaitasunik izan erregimenaren norabidean aldaketarik eragiteko^[7].





Azken urteetan garatu zen bloke antifaxistaren indar eta erreferentzia ere azpimarratu behar da. Izan ere, oposizioko mugimenduak erregimenaren hasieratik egon baziren ere, urte horietan erradikalizatu egin ziren, eta Salazarren krisialdiaren aurrean, zenbait ideologiak osatutako oposizio erradikal horrek zailtasunak jarri zizkion Caetanoren alternatiba erreformistari



1974KO APIRILAREN 25EKO ESTATU KOLPETIK KRABELINEN IRAULTZARA

Salazarren agintaldiaren amaieratik nahigabe soziala handitzen joan zen, eta Caetano boterean jartzeak, hori konpondu baino gehiago, areagotu besterik ez zuen egin: mobilizazio sozial handiak egon ziren bloke antifaxistaren gidaritzapean, geroz eta jende gehiago antolatzen hasia zen erregimenaren oposizioan, erregimenaren aurka altxatzen zirenei erreprezio gogorraz erantzuten zitzaientzen, eta horrek manifestarien gorrotoa handitzen zuen... Mobilizazio sozial horiek, ordea, ez zuten erregimenaren aldaketa bultzatzeko gaitasunik izan. Mugimendu hori indartu bitartean, militarren haserrea ere areagotu egin zen, eta horrek klandestinitatean gerra kolonialaren aurka antolatzen hastea ekarri zuen^[7].

Militarren antolakuntza zabala eta plurala izan zen; maila ezberdinetako kapitainak eta soldaduak aldaketa-premiaz jakitun ziren, eta arazo horrentzako aterabide ezberdinak garatu zituzten. Proposamen horietako gehie-

nek hasieran ez zuten erregimenarekin inongo hausturarik ekarri, gerra kolonialarentzat sustatu zen aterabide nagusia aterabide politikoa izan baitzen.

Garai hartan, posizio sozialen eta ideien araberako lerro ezberdinak garatzen hasi ziren, eta, 1961an porrot egindako estatu kolpe saiakeraz geroztik, haustura gertatu zen horien artean. Barne haustura horietan, alde batetik, goi karguetako militarrek kokatu ziren. Erregimenarekin harremanetan jarraitu zuten haiek egoera gatazkatsutik ahalik eta indartsuenen ateratzeko. Beste aldetik, «Kapitainen Mugimendua» izenez ezaguna izan den mugimendua zegoen; erdi mailako militarretatik hasi eta soldaduetaraino iristen zen. Nahiz eta hasieran despolitizatutako mugimendu bat izan eta gerra kolonialaren erantzun militarri aurka egiteko mobilizatu, laster hasi zen gerra kolonialak erregimenarekin eta haren interesekin zituen loturak identifikatzen. Mugimendu horretako kideek batarekin amaitzeko bestea gaingitu beharra zegoela ondorioztatu zuten.

Ordurako, Caetanoren erregimena egoera delikatuaren zegoen, eta Portugalgo geroz eta kapa zabalagoek aldarrikatzen zuten erregimenaren amaiera. Gainera, aintzat hartzekoa da jada erregimenak ez zuela sorreratik izandako indar armatuen babesa, eta agerikoa zen ezingo ziola edozein kolperi aurre egin.

1973a urte erabakigarria izan zen. Gineako frontearen zeuden erdi-mailako ofizial batzuen haserrearen ondorioz, mugimendua erradikalizatu egin zen; bilkura ugari egiten hasi ziren, eta erregimena gainditzea jarri zuten helburutzat. Hala, aldarri hori berehala zabaldu zen militar askoren artean, eta, ondorioz, Kapitainen Mugimendua zena, «Indar Armatuen Mugimendua» (Movimento das Forças Armadas, MFA) bilakatu zen^[7].

Modu horretan, MFAk 1974ko apirilaren 24an, 22:55ean, Rádio Emissores Associados irratiak seinale bat bidali zien Lisboako unitateei, hurrengo minutuetarako prestaketak hasteko. Paulo Carvalhoren *E depois do Adeus* abestia izan zen seinalea. Bigarren seinalea tentsio une batzuen ostean etorri zen; adostua zegoen 00:20-00:22 artean iritsiko zela mezu hori, baina momentuko arazo tekniko batzuek kolokan jarri zuten beharrezkoa zen zehaztasun hori. Behin gauzak ongi bideratuta, *Rádio Renascença* irratiaren *Zeca Afonso* kantautorearen *Grândola, Vila Morena* abestiaren zati bat irakurri zuten:

Grândola vila morena
Terra da Fraternidade
O povo é quem mais ordena
Dentro de ti, ó cidade.

Harekin, Portugal osoan altxamendua hasiko zelako mezua zabaldu eta unitate guztiak mobilizatu zituzten (Centro de Documentação 25 de Abril). Ordu batzuk beranduago, 03:00etan, hiriburuko irrati-telebista okupatu zuten, eta gobernuaren komunikabiderik gabe utzi zuten. Segidan, Caetanoren lehen erantzuna etorri zen: bere tropei erantzuteko agindua eman zien, baina

gehienek bat egin zuten altxamendua rekin, eta deia ez zen eraginkorra izan. 04:30ean, Lisboako kuartel nagusia okupatu zuten. MFAk ekintza horiek egiten zituen bitartean, jendeak, altxamenduarekin bat egin, eta kaleak hartu zituen, nahiz eta herritarrei etxean geratzeko mezua zabaldua zieten. Azkenean, 17:30ean eman zuen amore Caetanok, eta hala amaitu zen Europako diktadura luzeena^[8].

ESTATU KOLPEAREN BILAKAERA

Hasieran mugimendu despolitizatu zen MFA hark, behin estatu kolpea emanda, bestelako bilakaera izan zuen. Erantzun espontaneo ugari eman zituzten mugimendu politiko desberdinek, nahiz eta haien artean aipagarriena PCPren (Portugalgo Alderdi Komunista) eragina izan zen, erreazio espontaneo horiek norabide berean kokatzeko ahalegina egin baitzuen. Finen, PCPk jarri zuen lehen aldiz kolokan mugiezina zirudien oligarkia portugaldarraren posizioa^[7].

Denbora gutxian onartzen joan ziren oinarritzko askatasun zein eskubide politikoak; nekazariak galduak zituzten lurak berreskuratu zituzten, langileen kontrolpean geratu ziren enpresak berreskuratu zituzten, etab. Baina, bien bitartean, behin-behineko gobernu osatu eta bestelako helburu batzuk jartzen ari ziren boterean ezarri ziren alderdiak: demokratizazio parlamentarioarako prozesua abiaraztea eta Europako gainontzeko herrialdeekin berrintegratzea^[7].

Urte luzez egon zen Portugalgo herria diktadura horren menpe, eta asko izan ziren hari aurre egiteko aldarriak. Behin diktadurari amaiera emanda, ideia-aniztasuna azaleratu zen, eta horien artean pisu handia hartu zuten ideia marxistek. Haiek, diktaduraren amaiera ospatzeaz haratago, bestelako gizarte eredu baten aldeko aldarriak bultzatu zituzten, berdintasun errealean batean oinarrituko zen gizarte eredu baten aldekoak^[8].

«Kapitainen Mugimendua» izenez ezaguna izan den mugimendua zegoen; erdi mailako militarretatik hasi eta soldaduetaraino iristen zen. Nahiz eta, hasiera batean despolitizatutako mugimendu bat izaten hasi eta gerra kolonialaren erantzun militarri aurka egiteko mobilizatu zen, laster hasi zen gerra kolonialak erregimenarekin eta haren interesekin zituen loturak identifikatzen. Mugimendu horretako kideek batarekin amaitzeko bestea gainditu beharra zegoela ondorioztatu zuten.



Erradikaltasun horren beste aldean, ordea, kolpe militarra eman zuten militar kontserbadoreak zeuden, eta ez zuten begi onez ikusi gizartearen erradikalizaziorako joera hori. Horregatik, eta iraultzak bilakaera komunista izango zuen beldurrez, eskuineko militarrek beste estatu kolpe bat eman zuten 1975eko azaroan, demokratizazio parlamentariorako joera mantendu eta garatu zedin^[8]. Horrela, esperantzaz betetako iraultza batek sor zezakeen mugimendu iraultzaile indartsua barretu, eta Portugal Europan integratuta geratuko zen herrialde bat gehiago bilakatzea lortu zuten (logika kapitalistak adierazten zuen eran), zeinak ez zuen, aldarri erradikaletatik harago, iraultzarik gauzatzeko gaitasunik^[7].

BITXIKERIA: ZERGATIK KRABELINAK IRAULTZAREN SINBOLO?

Lisboan bizi zen emakume bat zen Celeste Caeiro. 1974ko apirilaren 25ean, berak lan egiten zuen jatetxeak urtebete egiten zuen, eta egun horretako militarren altxamenduagatik ez balitz, bertako jabeek jatetxearen urteurrena ospatzeko asmoa zuten. Ospakizunerako, erosiak zituzten lore sortak, baina jatetxeko nagusiak, bertara iristean, altxamenduaren berri izan, eta, ondorioz, festa bertan behera utzi behar izan zuen. Celeste, orduan, kalera joan zen zer gertatzen ari zen ikusteko, eskuetan krabelin gorri eta zuriekin. Bide horretan, altxamenduan parte hartzen ari zen soldadu batek zigarro bat eskatu zion. Celestek, zigarrorik ez eta horren ordez, eskuetan zuen krabelin gorrietako bat eskaini zion. Soldaduak hura onartu eta bere fusilean jarri zuen. Gainontzeko soldaduek ere ekintza bera errepikatu zuten, Celestek esku artean zituen krabelin gorri eta zuri guztiak banatu zituen arte. Horrela bihurtu ziren krabelin horiek Portugalgo diktadurari amaiera eman zion egunaren sinbolo. ●

ERREFERENTZIAK

- [1]** Carmona, 2009
- [2]** Hobsbawm, 2011
- [3]** Sánchez, 1995
- [4]** Linz, 1975
- [5]** Sanchez, 1997
- [6]** Baer, 1992
- [7]** Rosas, 2004
- [8]** Birmingham, 1995

BIBLIOGRAFIA

Baer, W.; Leite, A.: *The peripheral economy, its performance in isolation and with integration: The case of Portugal*. University of Wisconsin Press, 1992.

Birmingham, D.: *Historia de Portugal*. Cambridge University Press, 1995, Cambridge.

Carmona, A.: *La transición a la democracia en el sur de Europa. La historia como instrumento para su comparación*. Estudios Internacionales, Universidad de Chile, n. 162, 2009

Centro de Documentação 25 de Abril.

Hobsbawm, E.: *Historia del siglo XX*. Editorial Crítica, 2011

Linz. Juan J.: "Totalitarian and Authoritarian Regimes", Fred J. Greenstein eta Nelson W. Polsby, eds., *Handbook of Political Science*, vol. 3: Macropolitical Theory, Reading, Mass., 1975.

Rosas, F.: *Portugal siglo XX (1890-1976): pensamiento y acción política*. Editorial Regional de Extremadura, 2004, Badajoz.

RTVE: "Celeste Caeiro, mujer cuyos claveles dieron nombre a una revolución".

Sánchez, J.: *Las revolución portuguesa y su influencia en la transición española*. Nerea, 1995, Madril.



Argitalpena
2023KO OTSAILA
EUSKAL HERRIA

Koordinazioa,
erredakzioa
eta diseinua
**GEDAR LANGILE
KAZETA**

Web
GEDAR.EUS

Sare sozialak
TWITTER ETA
INSTAGRAM
@ARTEKA_GEDAR
FACEBOOK
@ARTEKAGEDAR

Kontaktua
**HARREMANAK@
GEDAR.EUS**

Harpidetza
**GEDAR.EUS/
HARPIDETZA**

Edizioa
**ZIRRINTA
KOMUNIKAZIO
ELKARTEA**
AZPEITIA

Lege gordailua
SS-01360-2019

ISSN
2792-4548

Lizentzia


arteka

